PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAREN KOMUNIKAZIO KANPAINETARAKO PUBLIZITATE, SORMEN ETA EKOIZPEN ZERBITZUAK KONTRATATZEKO ESPARRU-AKORDIOAREN ESPEDIENTEARENA

1.- Esparru-akordioaren xedea

Esparru-akordio honen xedeak honako hauek dira:

a) Gehienez ere lau enpresa kontratista hautatzea, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren komunikazio kanpainen publizitate, sormen eta ekoizpen zerbitzuak emateko.

b) Esparru-akordioan oinarritutako kontratuek bete beharko duten esleipen- eta beterazpen-baldintzak finkatzea.

Kanpainak sailaren helburu estrategikoekin lerrokatuta egongo dira, honako eremu hauetan, besteak beste:

- Jarduera fisikoa sustatzea.
- Kultura eta artistak gizarte-eragile gisa sustatzea.
- Euskararen erabilera sustatzea.
- Kultura ondareari balioa ematea.
- Goi mailako kirola sustatzea.
- Euskal ikus-entzunezkoen ekosistema zabaltzea.
- Euskal gizartearen eta kultura-nortasunaren izaera komunitarioa.

Horren helburua Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzari esleitutako eginkizunei erantzutea da, besteak beste, sailari esleitutako eskumenak modu koordinatuan gauzatzen laguntzea eta sailaren publizitate kanpainak kudeatzea.

2.- Zerbitzuen irismena

Kontratazioaren xede diren komunikazio kanpainen publizitate, sormen eta ekoizpen zerbitzuek honako alderdi hauek biltzen dituzte:

Kontzeptualizazioa eta diseinua:

- Ikuspegi estrategikoa garatzea.
- Eslogana eta lerro grafikoaren proposamena.
- Diseinu grafikoa (key visual).
- Mezuak eta testuak idaztea (euskaraz eta gaztelaniaz).
- Sailaren ikus-gida korporatibora egokitzea.

Materialak ekoiztea eta egokitzea:

- Ikus-entzunezko iragarkiak (telebista, zinema, streaming-a, sareak).
- Irrati-iragarkiak.
- Egokitzapenak:
  - Prentsa idatzia eta digitala.
  - Kanpoko publizitatea (MUPIak, OPPIak, banderatxoak, olanak, etab.).
  - Sare sozialak: Instagram, Facebook, X (Twitter), LinkedIn, TikTok, YouTube.
  - Plataforma digitalak (bannerrak, pop-upak).
  - Euskarri fisikoak (kartelak, liburuxkak, roll-ups, photocalls, etab.).

Gutxi gorabehera, urtean 4 kanpaina egitea espero da.

3.- Koordinazioa eta metodologia

Esparru-akordioan oinarritutako kontratu bakoitzaren erakunde esleipendunak, aurretik egindako proposamenaren arabera egin beharko ditu lanak, euskarazko eta gaztelaniazko publizitatea sortzeko metodologia aurreratu baten bidez.

Kanpaina/proiektu bakoitzaren hasieran, hasierako bilera bat egingo da, lan-plana eta hura amaitu arteko jarraipen-prozesua zehazteko.

Kontratua sustatzen duen organoak lan-egutegiaren berri emango dio enpresa esleipendunari, kontratua behin betiko onartu ondoren, behar besteko aurrerapenarekin.

Enkargua jaso ondoren, erakunde esleipendunak proiektua/kanpaina behar bezala burutzeko beharrezkoak diren izapide eta kudeaketa guztiak egingo ditu, eta Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzari zehatz-mehatz egindako jarduerak jakinarazi beharko dizkio.

Enpresa esleipendunak Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzak ezartzen dituen jarraibideetara egokitu beharko du une oro, zuzendaritza horrek une bakoitzean ezar ditzakeen lehentasunekin. Lehentasun horiek esparru-akordioan oinarritutako kontratua gauzatzean sortzen diren premien arabera erabakiko dira.

Enpresa esleipenduna prest egongo da organo sustatzaileak eskatzen dizkion bilera guztietara joateko.

Pertsona edo erakunde esleipenduna behartuta dago zerbitzua behar bezala emateko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak jartzera.

Enpresa esleipendunak egin beharreko lanek beti Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzaren oniritzia jaso behar dute.

4.- Ordutegi-prestasuna

Enpresa esleipendunak prest egon beharko du aginduak bulegoko ordutegitik kanpo jaso eta kudeatzeko, esparru-akordioan oinarritutako kontratuaren xedea betetzeko beharrezkoa denean. Horretarako, enpresak arreta-mekanismo bat bermatu beharko du, haren eta Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzaren artean adostutako gehieneko epe batean eskabideak jaso eta berresteko aukera emango duena, eta une oro bermatuko du indarrean dagoen lan-araudia betetzen dela.

Prestasun horri lotutako kostuak enpresa esleipendunak ordainduko ditu. Gainera, atal honetan zehazten dena behin eta berriz ez betetzeak zigorrak ekar ditzake.

5.- Ikuskapena eta kontrola

Esparru-akordioan oinarritutako kontratu bakoitzaren enpresa esleipendunak honako hauek egin beharko ditu:

- Koordinazio- eta jarraipen-bileretan parte hartzea.
- Egutegiari eta briefingaren eskakizunei egokitzea.
- Sailaren ikus-gida errespetatzea.
- Sailarekiko komunikazioan prestasuna eta arintasuna bermatzea.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.

SERGIO GREÑO LASHERAS - 72832132X

Digitalki sinatuta norengandik: SERGIO GREÑO LASHERAS - 72832132X
Data: 2025.12.11 14:07:36 +01'00'

Sergio Greño Lasheras

Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzako aholkulari juridikoa